



Nafarroako ikastetxeetan,
herritartasunerako hezkuntza
eta hezkuntza etiko-zibikoa
ikasgaietan, erabiltzen diren
testuliburu batzuen edukiari
buruzko txostena



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

NAFARROAKO IKASTETXEETAN,
HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA ETA
HEZKUNTZA ETIKO-ZIBIKOA IKASGAIETAN,
ERABILTZEN DIREN TESTULIBURU
BATZUEN EDUKIARI BURUZKO TXOSTENA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Izenburua : **Nafarroako ikastetxeetan, herritartasunerako hezkuntza eta hezkuntza etiko-zibikoa ikasgaietan, erabiltzen diren testuliburu batzuen edukiari buruzko txostena**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2010ko, Abendua

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

0

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

I. Aurrekariak	11
a) Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria	19
b) Familia ereduaren aniztasuna	22
c) Aukera afektibo-sexualak	25
II. Gogoetak	31
III. Ondorioak	57
IV. Iradokizuna	61

1

AURREKARIAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

1. AURREKARIAK.

1 . 2010eko irailaren 30ean, erakunde honek Nafarroako Parlamentuko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andrearen txosten-eskari bat jaso zuen. Hain zuzen ere, foru parlamentariak eskatzen zuen txosten bat egiteko, Nafarroako ikastetxeetan, Herritartasunerako Hezkuntza eta Hezkuntza Etiko-zibikoa ikasgaietan, erabiltzen diren testuliburu batzuen eduki jakin batzuei buruz, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan generoen berdintasunari, familia-ereduen aniztasunari eta aukera afektibo-sexualei buruz ezarritako irizpideen kariatara.

Eskariarekin batera, aipatutako ikasgaietan erabiltzen diren testuliburu batzuen aterakin batzuk, argialetxe desberdinetakoak, erantsi zituen.

2. Eskaria jasota, hura Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikulura bil zitekeela ulertu genuen; izan ere, artikulua horrek ahalmena ematen die foru parlamentariari banaka

eskatzeko Nafarroako edozein administrazio publikotan, beren eskumenen esparruan, gertatutako ekintza, ebazpen eta jarrera jakinak argitu eta iker ditzan, pertsona batengan zein pertsona-talde batengan eragina badute. Gai horri buruz, ez da lehenago kezarik bat ere jaso.

3. Kontuan izanda eskaria zein arlori buruzkoa den, txosten bana eskatu zitzaien Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari (hezkuntza ikuskaritza) eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari (Nafarroako Berdintasunerako Institutua), iritzia eman zezaten testuliburu horiek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko Lege Organikoaren arabera izateari buruz.

4. 2010eko abenduaren 7an, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eginiko txosten bat igorri zion Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak erakunde honi. Bertan, honakoa ageri da:

“Nafarroako Berdintasunaren Institutuari eskatzen diozun txostenari dagokionez, hain zuzen ere María Luisa Mangado

parlamentariak lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako testuliburu batzuen edukia arauen arabera izateari buruz eskatutako txostenerako orientabide gisa, honako informazioa ematen dizut nire eskumenen esparruan.

Gizarte antolaketako eredu guztiekin batera “ideologia” bat eta hura zilegi eta iraunkor egiten duten balioen sistema bat egoten dira. Jakintzaren soziologiaren ikuspuntutik, “ideologia” “mundu-ikuskeraren” baliokidea da.

Balioen sistemak eredu hierarkizazio bat inplikatu du, eta eredu horiek sistema horren arabera legitimatu dira. Egungo mendebaldeko gizarteak transmisiorako bide instituzionalizatu dauka: eskola, zeinak, familiarekin batera, pertsonen hezkuntza prozesuaren zatirik handiena hartu baitu.

Munduaren irudikapen hori sozializazio prozesuaren bitartez betikotzen joaten da. Prozesu horrek komunikaziorako daukan tresna nagusia, berriz, hizkuntza da, zeina, horrenbestez, munduaren aurreko gure jarreraren euskarri sinboliko bat baita.

Alabaina, gizarte bakoitzak, bere bilakaera historikoan, produktu sozialen multzo bat eraikitzen du: antolamendu

sistemak; komunikaziorako kodeak; kultur adierazpenak; jokabideak; espazioaren erabilera eta bilakaera; prozesu historikoaren, sinesmenen eta pentsamendu nahiz tradizioaren antolaketa, besteak beste. Horiek guztiek jakintzaren objektuak sortzen dituzte eta objektu horiek, hautapen prozesu baten ondoren, curriculumetan antolatzen eta egituratzen dira, irakasteko –eta, noski, ikasteko– zerbait bilakatzeraino.

Hezkuntza prozesuetan eragiten duten faktore ugari badaude ere, testuliburuek irudikatzen eta hezurmamitzen dituzte beharrezkotzat jotzen diren –eta, gainera, errealizat eta egiazkotzat legitimaturik dauden– kultura eta jakintza. Oraindik ere, lanerako eta kontsultarako tresna globalizatzailea eta tresna bateratzailea ez ezik –eskola guztietan erabiltzen baitira– hezkuntzaren eta eskolaren arloko komunikaziorako tresna ere badira –tresna iraunkorra, gainera–, ahozko lengoaiaren eta ikonoen lengoia inprimatuaren bitartez. Izate estandarizatzaile horren helburu funtzionala da belaunaldi berriak gizarte batean gailentzen diren ereduaren arabera sozializatzea.

Horrela, testuliburuek, zehazki lantzen duten eskola-ikasgaia irakatsi ez ezik, ikur sozialen kode oso bat ere lantzen dute.

Edozein testutan, generoko bazterkeriaren alderdirik ezagunena eta aitortuena genero maskulinoa genero orokor gisa erabiltzea bada ere, testuliburuetako sexismoa baloratzeko garaian honako fenomenoak gertatzen diren ala ez begiratu beharko da:

15

- 1. Emakumeak ikusezin bihurtzea: emakumeak ez dira agertzen, besterik gabe.*
- 2. Bazterketa: emakumeak modu argian eta berariaz kanpo uzten dira; emakumeak guztiz nahiz partzialki desagerrarazten dira fenomeno sozialetatik, historikoetatik eta abarretatik; emakumeek gizartean izan duten parte-hartzea eta egin duten ekarpena ezkutatu edo estaltzen da (irrealtasuna); eta hori, noski, emakumeek gertakarietan izandako parte-hartzea aldaraztea da (errealitatea zatikatzea).*
- 3. Mendetasuna: emakumeak objektu pasibo baten gisara ageri da, hizketarako gai den edukiari eta xedeari dagokienez; tratu-desberdintasunak erakusten dira, ahozko nahiz idatzizko adierazpideen generoari dagokienez.*

4. *Emakumeak baliogabetzea: beheragoko zerbaiten gisara aipatzen dira, edo gutxiagotasunaren adibide gisa, alderaketak egiten direnean. Baliogabetzea gertatzen da emakumeek egiten dutenak gutxiago balio duenean gizonak egiten dutena baino. Askotan hori distortsio-fenomeno batekin lotu ohi da, gizonaezkoak nahiz emakumezkoan nortasunaren oinarritzko ezaugarri bat nabarmenduz (estereotipo sexistak) aipatzen direnean.*

Testuliburuetan generoaren ikuspegia integratzeko betebeharra zenbait arautan ageri da jasota, baina eskarian hori berariaz aipatzen baita, soilik Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa aipatuko dut.

24. artikulua. Berdintasun printzipioa hezkuntza-politikan barneratzea.

1. Hezkuntza-administrazioek emakumeei eta gizonen hezkuntzarako eskubide bera bermatuko diete, tratu-berdintasunaren printzipioa modu aktiboan barneratuz, hezkuntza-helburu nahiz -jardueretan, eta emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak

sortzea saihestuz, jokabide sexistengatik edo halakoekin zerikusia duten gizarte-estereotipoengatik.

2. Hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen esparruan, helburu horri begira, hurrengo jarduerak gauzatuko dituzte:

a) Jokabide nahiz eduki sexistak eta emakumeen eta gizonen artean bereizkeria sortzen duten estereotipoak ezabatzea eta ezestea, batez ere, testu-liburuetan eta hezkuntza-materialetan.

b) Berdintasun-printzipioari buruzko ikasketa eta aplikazioa barneratzea irakasleen hasierako prestakuntzarako nahiz prestakuntza iraunkorrerako ikastaro eta programetan.

c) Lankidetzan aritzea gainerako hezkuntza-administrazioekin, proiektuak eta programak garatzeko, xede dutenak hezkuntza-erkidegoko pertsonen artean suspertzea baterako hezkuntzari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarriari buruzko printzipioen ezagutza eta zabalkundea.

d) Hezkuntza-neurriak ezartzea, historian zehar emakumearen egitekoa aitortu eta irakastea xede dutenak”.

5. 2010eko abenduaren 12an, Hezkuntza Departamentuan Ikasketak Antolatzeko Zerbitzuaren txosten bat jaso zen, non honakoa adierazten baita:

“1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, laugarren xedapen gehigarrian, honakoa ezartzen du: testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko ez da beharrezkoa izango hezkuntza-administrazioaren alde aurreko baimena, baina, nolana ere, ikasleen adinari dagozkion zehaztasun zientifikora eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onartutako curriculumera egokituta egon beharko dute. Laugarren xedapen gehigarriak berak honakoa ezartzen du: Testuliburuaren eta beste curriculum-material batzuen ikuskapena hezkuntza-administrazioak irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruko elementu guztiak ikuskatzeko garatzen duen prozesu arruntaren zati izango da. Prozesu horretan, Konstituzioan jasotako printzipioekiko eta balioekiko,

eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan xedatutakoarekiko errespetua zaindu beharko da.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren barruan, Ikasketak Antolatzeko Zerbitzuari dagokio testuliburuak eta gainerako curriculum-materialak aztertu eta analizatzeko eginkizuna, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen irailaren 3ko 122/2007 Foru Dekretua aldatzen duen ekainaren 22ko 56/2009 Foru Dekretuaren arabera.

2. Aipatutako parlamentariak Nafarroako Arartekoari aurkeztu dizkion testuliburuaren aterakinak analizatu ondoren, Ikasketak Antolatzeko Zerbitzuak honako ondorioak atera ditu:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria:

Testuliburuak gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarriari ematen dioten tratamendua, emandako aterakinen arabera, indarreko arauen arabera da.

Atzematen da apustu argia egiten dela ikasleak sentsibilizatzeko emakumeen duintasuna dela-eta eta hain modu dramatikoan gaurkotasuna hartu duen emakumeen aurkako indarkeria dela-eta. Horrela, esate baterako, Casals 2 izeneko aterakinean, 28. orrialdean, honakoa ageri da, hitzez hitz: Gaur den egunean, oraindik ere beharrezkoa da gizarte osoak konpromisoa hartzea gizonen eta emakumeen berdintasuna erdiesteko: konpromiso horrek femeninitasunaren balioak nabarmendu beharko lituzke eta gizonetzkoak sentsibilitate berri batean inplikatu beharko lituzke, estereotipo matxistak alde batera utzita. 60. orrialdean, honakoa esaten du: Tamalez, bikotekideak nahiz bikotekide ohiak erasotako nahiz hildako emakumeei buruzko albisteak iristen zaizkigu maiz. Datu estatistikoak asaldagarriak dira, eta salatu diren kasuak baizik ezin ditugu kontabilizatu. Generoko indarkeria gizartearen egiazko lakra bat bilakatu da.

Octaedroren Hezkuntza Etiko-zibikoko liburuaren aterakinetako batean, zehazki 9. orrialdean, 2. ariketa ageri da, tradizioan neskei esleitu zaizkien

lanen eta mutilei esleitu zaizkien lanen zerrendei buruzkoa. Bikoteka egin beharreko lan bat da, non neskek mutilen zerrendatik hiru lanbide aukeratuko dituen, eta alderantziz. Ariketan bertan adierazten den bezala, behin hautatu ondoren, bikotekide bakoitzak beste bikotekideak hautatu dituen lanbideen aurkako argudioak eman beharko ditu, eta justifikatu beharko du lanbide horiek ez direla egokiak bikotekide horrentzat. Jarduera diseinatuta dagoen modutik ondorioztatzen da bideratuta dagoela, hain zuzen ere, lanbideak hautatzeko garaian egoten diren estereotipoak haustera. Ez alferrik testuan esaten da “saiatu justifikatzen” ikaskideak hautatu dituen lanbideak ez direla egokiak, eta ez “justifika ezazu” ez direla lanbide egokiak. Ulertzen dugu eskuliburu hori prestatu dutenek modu inplizituan azpimarratzen dutela justifikatzeko ahalegin hori alferrik izanen dela, eraginik gabekoa.

Hala eta guztiz ere, egia izanik ere ezen, orokorrean, emakumeak ikusezin bihurtzen ez duen hizkuntza inklusiboaren erabileran hobetzeko tarte handia dagoela –nabarmena denez–, egia da, era

berean, gure ustez hizkuntza inklusibo horren erabilera prozesu bat dela –gizarte espainiarra pixkanaka gauzatzen ari den prozesu bat, hain zuzen–, eta prozesu horretan erresistentziarik eta zailtasunik badagoela, eta, horrenbestez, ibiltzeko bide luzea gelditzen zaigula. Hala eta guztiz ere, arestian eginiko zehaztapenetik ez da ondorioztatzen testuak ez direnik lege indardunen araberakoak.

Irudiei dagokienez, atzematen da orokorrean neskak eta mutilak, emakumeak eta gizonak agertzen direla, eta irudietako bakarra ere ez da inorentzat laidogarria. Hala eta guztiz ere, orobat egia da nolabaiteko joera bat atzematen dela irudien bitartez egungo gizartearen errealitatea islatzekoa, eta zenbait roletan gizonezkoen nagusitasuna nabarmentzen dela, eta ez hainbeste gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarria duen gizarte bat. Hori dela eta, egungo gizartearen isla horretatik ez da ondorioztatzen arau indardunekiko egokitze falta bat gertatzen denik, baina bai arlo horretan hobetzeko tarte bat badagoela.

b) Familia eredu en aniztasuna:

Helarazi dizkiguten aterakinen arabera, testuliburuetan familia-eredu desberdinak jasotzen dira, eredu konbentzionalaz gainera.

Esate baterako, SM argitaletxearen Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko liburuaren aterakineko 124. orrialdean, familia nuklearretik abiatuta hitzez hitz esaten da familia modu berriak agertu direla, gurasoen egoeraren araberrakoak: - Guraso bakarreko familiak, non seme-alabak gurasoetako bakarrarekin bizi baitira. Banantze baten, dibortzio baten, guraso baten heriotzaren edo pertsona bakar batek seme-alabak eduki edo adoptatzeko erabakiaren ondorioz izan daiteke hori. - Dibortzio edo banantze baten ondoren berregindako familiak, non batera bizi daitezkeen bikote desberdinetako seme-alabak. Egiazki, ez dira berariaz aipatzen sexu bakarreko bikoteek osaturiko familiak, baina, nolnahi ere, ez da berariaz aipatzen, ezta ere, familiak sexu desberdineko pertsonak osatu behar dituztenik. Eta, txosten honetako atal bereko a) letran islatu den

bezala, hizkuntza inklusiboaren erabilera nabarmen hobetu daitekeen zerbait da.

Santillana argitaletxearen DBHko 4. mailako Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko liburuko aterakinean, 38. orrialdean, agertzen da gizarte modernoetan familia gizartea antolatzeko oinarrizko unitate bat dela. Familiaren eginkizunetan, osaketan, gurasoen roletan eta ahulenen zainketan gertatu diren aldaketak gorabehera, familiaren egitekoa oraindik ere ezinbestekoa da bizitzarako eta hazkunde pertsonalerako. Testuak argi uzten du familiaren osaketan ere aldaketak izan direla, eta, horrenbestez, ez da inolaz ere ondorioztatzen testuliburu horretan soilik familia tradizionalaren aldeko apustua egiten denik. Kasu honetan, hizkuntza ere hobetzeko modukoa da, emakumeak ikusgarri egiteari dagokionez. Aipatutako testuliburuan familiak irudikatzeko hautatu diren irudiak dakartzan aterakinari dagokionez, esan beharra daukagu material hori prestatu dutenek libreki egin dutela inguruko familia errealak islatzen dituzten irudien aldeko hautua, nahiz eta,

zalantzarik gabe, eredu ugari dauden. Eta, nolanahi ere, irudiek errespetua berdin-berdin erakusten diete neskei eta mutilei, gizonei eta emakumei.

Familien aniztasun hori Casals 2 aterakineko 11. orrialdean ere ageri da, non aipatzen baita gaur egun familia-inguruneen aniztasuna gure garaietako ezaugarri bat dela. Familia konbentzionalaz gainera, bestelako bizi-egoera batzuk aurkitzen ditugu; esate baterako, guraso bakarreko familiak, gurasoen harreman berrien inguruan berrelkartutako familiak eta abar.

c) Aukera afektibo-sexualak:

Testuliburuek aukera afektibo-sexual desberdinei ematen dieten tratamendua, emandako aterakinen arabera, indarreko arauen arabera da.

Egiazki, emandako aterakinetan, berariazko aipamen gutxi daude harreman heterosexualei buruz eta harreman homosexualei buruz. Homosexualitateari dagokionez, Casals 2 aterakinean, 29. orrialdean, honakoa esaten da

hitzez hitz: Homosexualitatearen legezko babesa gorabehera, pertsona homosexualek maiz gizartearen bazterketa (homofobia) pairatzen dute. Bazterketa hori mingarria da eta ez du errespetatzen haien giza duintasuna. Argi dago argitaletxearen errespetua homosexualitatearen aukera afektibo-sexualarekiko.

Maitasunari buruz hitz egiterakoan, liburuetako aterakinetan hori bezain konplexua den kontzeptu baten inguruan dauden adierazpen desberdinak azpimarratzen dira. Horrela, Santillana argitaletxearen DBHko 4. mailako Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko aterakinean, 41. orrialdean, grekoek maitasunari buruz hitz egiteko erabiltzen zituzten hiru hitzak azaltzen ditu: eros, filia eta agape. Alabaina, bikote-harremanari buruz eta maitemintzeari buruz hitz egiterakoan, ez da berariaz aipatzen bikotekideen edo maitemindutako pertsonen sexua, edo harremanak heterosexualak ala homosexualak diren. Nabarmena da hori Santillana argitaletxeko DBHko 4.mailako Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko aterakinean, 40. orrialdean, eta Casals 1 izeneko

aterakineko maitemintzeari buruzko kapituluan. Maitemintzearen erreferentziek beti maitemindutako pertsonari edo maite den pertsonari buruzko aipamena egiten dute, gizonezkoa ala emakumezkoa den esan gabe.

Gai hori dela-eta irudiei ematen zaien tratamenduari dagokionez, adibide gisa jar daiteke Santillana argitaletxearen DBHko 4. mailako Herritartasunerako Hezkuntza liburuko aterakinean, 40. orrialdean, ageri dena. Egiazki, irudian, itxura batean, neska bat eta mutil bat ageri dira, baina kontuan izanda maitasunari buruz, gizakiaren beharrian gisa, idatzitako kapituluan ageri direla, ez dago zertan irudi hori lotu maitemintzearekin edo harreman heterosexualarekin; izan ere, maitasunaren funtsezko beste adierazpen batzuekin ere lotu liteke: anaitasuna edo adiskidetasuna, esate baterako. Eta bikote heterosexual baten harremana irudikatuko balu ere, bikote homosexualarena bezain errespetagarria den errealitate bat islatuko luke. Bestalde, irudiak bi pertsonetikiko errespetua zaintzen du.

Aurrekotik guztitik, Ikasketak Antolatzeko Zerbitzuko zuzendari honek ondorioztatzen du ezen Mangado Cortes parlamentariak Nafarroako Arartekoari aurkeztutako testuliburuaren aterakinen edukiak Konstituzioaren printzipioak, askatasunak, eskubideak eta betebeharreko errespetua islatzen eta sustatzen dutela, eta testuliburu horiek lege indardunen arabera direla”.



2

GOGOETAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

2. GOGOETAK.

Lehenbizikoa. Igorritako testuak aztertzen hasi aurretik, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikulua arabera erakunde honen jarduerari dagokion neurrian, bidezkoa da aipamen bat egitea, laburra bada ere, gai honen markoa osatzen duten oinarri konstituzional eta legezkoen buruz.

31

Hasteko, esan beharra dago Konstituzioak, 27. artikuluan, aitortzen duela guztiok hezkuntzarako eskubidea daukagula (lehenengo idatz-zatia), eta ezartzen duela derrigorrezkoa eta doakoa dela oinarrizko mailako hezkuntza (laugarren idatz-zatia). Hezkuntzak, Konstituzioaren testuaren beraren arabera, helburu izan behar du gizakiaren nortasuna guztiz garatzea bizikidetasunaren printzipio demokratikoa eta oinarrizko eskubideen eta askatasunen errespetua abiapuntu hartuta (hirugarren idatz-zatia). Bada, aurreikuspen hori hertsiki lotuta dago oinarrizko arauko 10.1 artikuluan ezarritakoarekin, zeina Konstituzioaren atal dogmatikoaren –hau da, eskubideen eta askatasunen aitorenari buruzkoaren– sarrera baita.

Helburu hori ziurtatzeko eta legeak ere beteko direla ziurtatzeko –izan ere, Konstituzioak legeen esku uzten du aitortutako eskubideen araupetzea–, botere publikoei esleitzen zaie hezkuntza-sistema ikuskatzeko xedea (27. artikuluko zortzigarren idatz-zatia); bada, egiteko horretan sartzen da liburuak eta erabilitako gainerako curriculum-materialak ikuskatzea.

Horrela egituratuta ageri den hezkuntzarako eskubidearekin batera, Konstituzioak, plano berean, hezkuntzarako askatasuna aitortzen du, ulertuta hura dela hezkuntzari buruzko ideia berekien araberrako ikastetxeak sortzeko askatasunerako eskubidea, betiere Konstituzioaren printzipioak (seigarren idatz-zatia) errespetatuta, eta ulertuta, orobat, askatasun hori berme bat dela, beste batzuekin batera, gurasoek eskubidea izan dezaten beren uste sendoen araberrako heziketa erlijioso eta morala hautatzeko beren seme-alabentzat (27. artikuluko hirugarren idatz-zatia). Aurreikuspen hori zalantzarik gabe lotuta dago Konstituzioko 16. artikulua aldarrikatzen duen askatasun ideologiko eta erlijiosoarekin, bai eta 20.1.c) artikuluan aitortutako katedra-askatasunarekin ere.

Konstituzioaren aurreikuspen horiek beraiekin ekarri dute hezkuntzarako eskubidean dimentsio bikoitza edo alde biko frontea aitortzea –prestazioa eta askatasuna–, eta hori, nahitaez, Konstituzioaren eskubide, printzipio eta balioen esparruan harmonizatu beharreko zerbait da.

Bigarrena. Konstituzioak hezkuntzarako eskubideari buruz ezarritako aurreikuspen horiek eta haien harira laburbildu nahi izan diren ideia nuklearrak abiapuntu hartuta, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldarrikatu zuen hezkuntza-sistema Konstituzioaren balioen arabera egituratzen dela, eta Konstituzioan aitorturiko eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarritzen dela, eta inspirazio gisa printzipio batzuk badituela; bada, printzipio horien artean, orain interesatzen zaigunari begira, honakoak aipatzen dira: tolerantzia, errespetua, justizia, bazterkeria oro gainditzea, eskubideen eta aukeren berdintasuna eta gizonen eta emakumeen berdintasun erreal eta eragingarria.

Liburuei eta gainerako curriculum-materialei dago-kenez, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezartzen

du haiek zorroztasun zientifikoa eduki beharko dutela eta egokiak izan beharko dutela ikasleen adinetarako eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onetsitako curriculumerako. Halaber, Konstituzioaren printzipio, balio, askatasun, eskubide eta betebeharrakiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute, bai eta Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako printzipio eta balioekiko errespetua ere (laugarren xedapen gehigarria).

Horri dagokionez, Konstituzioaren 27.8 artikuluan ezarritakoarekin bat, lege organiko horrek aurreikusten du testuliburuak eta bestelako curriculum-materialak ikuskatzea hezkuntza-administrazioak elementu eta ikasketa guzti-guztien gainean gauzatzen duen ikuskapen-prozesu arruntaren barruan sartzen dela, eta prozesu horretan zaindu beharko dela Konstituzioaren printzipio eta balioak errespetatzen direla eta lege horretan ezarritakoa betetzen dela.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, zeina ainguratuta baitago Konstituzioaren

9.2 eta 14. artikuluek aipatzen duten berdintasun-printzipioan, zeharkako norainokoa duen araua izanik ere, jasotzen du hezkuntza sistemak, bere kalitate-printzipioen barruan, bere baitan bildu behar duela emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria zailtzen dituzten oztopoak deuseztatzea eta batzuen eta besten arteko guztizko berdintasuna sustatzea (23. artikulua). Ildo horretatik, hezkuntza-administrazioei gomendatzen die saihestu dezatela hezkuntza-sisteman, jokabide sexisten ondorioz nahiz haiekin lotutako estereotipo sozialen ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gertatzea, eta aipatzen du eragin horietarako bereziki erreparatu behar zaiela testuliburu eta gainerako hezkuntza-materialen edukiei.

Hirugarrena. Orain arte aipaturiko erreferentziako marko hau osatu beharra dago Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculum ezartzen duen martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuan eta Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculum ezartzen duen martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuan jasotako xedapenekin.

Xedapen horietan –hietetara jo beharko da xehetasun gehiago biltzeko–, jaso ziren (bietako II. eranskinean) igorritako testuei (Herritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak eta Hezkuntza Etiko-zibikoa) dagozkien arloetako edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak.

Laugarrena. Aurreko gogoeta orokorrak eginik, bidezkoa da igorritako testuen edukia aztertzea, foru parlamentariak bere eskarian proposatu eta Hezkuntza Departamentuak bere txostenean erabilitako metodo eta irizpide berak baliatuz: gizonen eta emakumeen berdintasuna; familia-ereduen aniztasuna, eta aukera afektibo-sexualak.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari dagokionez, irudietan islatzen denari dagokionez, gizonak, emakumeak, mutilak eta neskek normaltasunez ageri dira, modu zuzen eta errespetuzkoan, eta horri dagokionez, oro har, ezin da emakumearen ikusezintasunaz hitz egin.

Egia da, ordea –eta alderdi hori hobetzeko modukoa da, erakunde honen iritziz–, proposatutako testuetako eta ariketetako zenbait zatitan batzuen eta besteen rol

tradizionalak islatzeko joera atzeman daitekeela, eta horrekin, irudi estereotipatuak aurkezten direla batzuetan, eta jo daitekeela irudi horiek egungo errealitatek urrun daudela edo gainditzeko bidean daudela.

Horren adibide bat Octaedro argitaletxeko Hezkuntza Zibiko-etikoa ikasgaiko liburuan, 9. orrialdean, aurkituko dugu, bertan lanbideen zerrenda bat ematen baita, eta batzuetan “neska” aipatzen da eta beste batzuetan “mutila”. Lehenengoetan honakoak aipatzen dira: etxeko andrea, bulegoko idazkaria, haurtzaindegiko irakaslea, etxe eta bulegoetako garbitzailea, saltoki handietako kutxazaina, haurtzaina, zaharren andre laguntzailea, erizaina, modista, azafata, dantzaria eta estetizista. Bigarrenetan, berriz, honakoak: atezaina, kontularia, bankuko zuzendaria, hegazkineko pilotua, autobus gidaria, zurgina, taxilaria, nekazaria, futbolari profesionala, informatikaria eta igeltseroa. Segur aski, egilearen asmoa ez da desberdintasun horren aldeko aldarrikapena egitea, baizik eta, hartatik abiatuta, kontrako helburua lortzea (Hezkuntza Departamentuak igorritako txostenean deskribatzen den bezala, ariketaren xedea da bikote mistoak egin, bestearen

sexuko lanbideak hautatu eta egindako hautuaren desegokitasunaz bestea “konbentzitzen saiatzea”), baina baieztatu beharra dago, horrela planteatuta, hartzaileak testuak gaizki interpretatzeko arrisku bat badagoela, eta hain zuzen ere arriskua dagoela ulertzeko esaten den horixe dela errealitatearekin bat datorrena eta jarraitu beharreko eredia. Hori dela eta, erakunde honek uste du nesken eta mutilen arteko lanbideen bereizkuntza hori –formulatuta ageri den terminoei erreparatuta eta jakinik ere haren xedea guztiz aurkakoa dela– ez dela egokia, are gehiago kontuan hartzen bada gizonezkoen lanbideetan kualifikazio profesional handiagoa ageri dela.

Ildo beretik, liburu berean (74. eta 75. orrialdeak), familia-unitate batzuk deskribatzen dira, zenbait ezaugarri eta gorabeherekin, eta hor ere ez zaigu egokia iruditzen nabarmen suertatzen den joera bat, proposatutako sei adibideak aztertuta ikusten dena: gizonaren lanaldia etxetik kanpoko lanarekin identifikatzea eta emakumearena, berriz, etxeko lanekin. Bestalde, gizonaren eta emakumearen nahiak bereiz azaltzen diren sei adibideetako bakarrean, aipatzen da aitak “lau gurpiletako trakzioa duen

ibilgailua” desioa duela eta amak, berriz, “jantzi eta zapata berriak”. Izan ere, irudi hori, nabarmena denez, estereotipo bat da. Beste behin, jardueran datu deigarriei eta diferentzien justifikazioari buruz galdetzen den neurrian, litekeena da jarduera bideraturik egotea, hain zuzen ere, estereotipo horiek desagerraraztera –dena den, hori irakaslearen jokaeraren arabera izanen da–, baina, aurreko lerrokan adierazitakoaren ildo beretik, litekeena da informazioaren hartzailleak hura naturalki eta sozialki onartzeko moduko zerbaiten gisara hartzea.

Ez da ahaztu behar “informazio” horren hartzailleak gazte adingabeak direla, eta halakoekin lan egiten denean, bizikidetasuneko balioak sustatzera bideratutako irakaskuntza orok argia izan behar duela, eta ez nahasgarria. Arlo horretan, gomendagarriagoa ematen du ikasleek gaizki interpreta ditzaketan planteamenduak saihestea.

Ez dirudi, ezta ere, oso egokiak direnik, erakunde honen iritzi eta gizonen eta emakumeen artean berdintasun eragingarria bilatu eta estereotipoak saihesteari begira, Anaya argitaletxearen Hezkuntza Etiko-zibikoko

liburuan, elkarren antzekoak diren eta bata bestearen ondorengoak diren bi eztabaida-ariketetarako egiten diren sarrerak (norberaren nortasuna alda daiteke?; eta dauzkagun ideiak nondik heldu dira?). Lehenengo kasuan, ariketaren sarreran aipatzen da bi neska, Julia eta Sara, ikasgelako adiskideak, Evari buruz “kuxkuxean” ari direla Marioren aurrean; bigarren kasuan, antzeko ariketa baten sarreran, aipatzen da bi mutil, Rubén eta Pablo, elkarrekin “eztabaida interesgarri” batean ari direla. Aurkezpen molde horrekin, ematen den irudia da emakumea “kuxkuxero” bat dela eta gizonek, berriz, “eztabaida interesgarriak” izaten dituztela. Agian, egokiagoa izan zitekeen ariketa beste modu batera planteatzea edo parte-hartzaileak nahastea.

Testuliburu berean (68. eta 62. orrialdeetan), azalpen batzuen harira, goi mailako kirolarien edo goi kargudun politiko batzuen argazkiak agertzen dira, eta guztiak gizonezkoen irudiak dira (gizona=arrakasta; arrakasta=gizona). Ez du ematen ikuspegi hori egokiena denik berdintasun eragingarria lortzeko helburuari begira.

Bestalde, Santillana argialetxearen Herritartasunerako Hezkuntzako liburuan, gizonak eta emakumeak rol jakin batzuekin lotzen dira, eta hor ere irudi estereotipatu gerta daiteke (“higiezinaren jabea” –gizona–, “GKE baten ordezkaria” –emakumea–, “erkidegoko lehendakaria” –gizona–, “hirigintzako zinegotzia” –gizona–, “abokatu feminista bat” –emakumea–, “etxeko andreen elkarteko lehendakaria” –emakumea–, “gizarte ongizateko zinegotzia” –gizona–).

Santillana argialetxearen Herritartasunerako Hezkuntzako liburuan, kontsumo arduratsuari buruzko atalean (96. eta 97. orrialdeetan), emakumearena da nabarmen nagusitzen den irudia. Ariketaren testutik ondorioztatzen bada ere helburua dela kontsumoan erantzukizunez jokatzeari, agian egokiena da hura soilik emakumeen irudiekin ilustratzea (bereziki, erosketak egiten); horrenbestez, emakumeari buruz nabarmentzen den irudia etxeko lanekin eta erosketekin lotutakoa da.

Azkenik, liburu berean, gabezi ekonomikoaren arazoa aztertzen den zatian (128. eta 129. orrialdeak) berriz ere estereotipo batzuk agertzen dira familiaren eginkizunen

banaketa dela eta. Horrela, inguratzen duten arazo ekonomikoez (hiru seme-alaben aita, langabezian, etxebizitza erosteko hipoteka bat eta kotxea ordaintzeko mailegu bat ordaintzeko beharrarekin...) kezkatutako familiako aita baten irudia agertzen da, eta esaten da “haren emazteak ezin duela lanik egin, seme-alaba txikiak zaindu behar dituelako”. Ezin da esan irudikatutako egoera errealitatean existitzen ez denik, baina egia da, era berean, familiako rolen banaketa tradizionalari, gainditzeko bidean denari, erantzuten diola horrek, eta eredu hori ez dela bakarra eta gutxi egokitzen zaiola lege indardunek eta botere publikoek sustatu nahi duten ereduari, hain zuzen ere gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarriaren ereduari eta erantzukizunak berdintasunez elkarrekin banatzearen ereduari.

Antzeko zerbait aipa daiteke hurrengo orrialdean erabiltzen diren erduei buruz. Horietan, gabezia ekonomikoen kontuari aipamena eginez, honakoak aurkezten dira: familia ugari bateko aita bat, langabezian dagoena eta etxera lotsaturik iristen dena; banku-entitate garrantzitsu bateko zuzendari bat, gizonezkoa. gorriak pasatzen ari dena; eraikuntzaren

sektoreko gizonezko jubilatutako bat, pentsio urria duena; arazoak dauzkaten familiei arreta egiten dien gizarte langile bat, emakumezkoa; eta Caritaseko emakumezko boluntario bat, premia duten pertsonen eskakizunei erantzuteko behar adina bitarteko ez duena. Nabarmena da batzuen eta besteen egitekoen azpitik gizonak eta emakumeak gizaratean eta lan arloan betetzen duten paperaren irudi estereotipatu bat dagoela, hain zuzen ere gainditzeko bidean dagoen irudi bat.

Bosgarrena. Hizkuntzaren erabilera dela eta, beste iruzkin bat egin beharra daukagu. Hezkuntza Departamentuak adierazitakoarekin bat, nabarmena da, oro har, hobetzeko modukoa den tarte argi bat badagoela, hizkuntza inklusiboa eta emakumeak ere ikusgarri egingen duena erabiltzeari dagokionez. Nahikoa litzateke aipatzea, esate baterako, Santillana argitaletxearen Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko testuliburua (hirugarren eta laugarren orrialdeak), non *“todos”, “compañeros y profesores”, “amigos”, “nosotros”, “los artistas”, “buenos ciudadanos”* eta abar aipatzen baitira. Edo, baita ere, S.M. argitaletxearen Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko testuliburua,

“vecinos”, “súbdito”, “el entrenador” eta “el arquitecto” bezalakoak aipatzen dituen.

Ados egonen gara esaterakoan bilakaera prozesuan dagoen gai bat dela, eta, zergatik ez esan, hari buruz ez dagoela adostasun orokorrik ez gizartean ez arlo akademikoan, baina, halere, hizkuntza ez sexista eta inklusiboa gero eta gehiago erabiltzeko ideia nagusitzen ari dela. Nolanahi ere, egia da, era berean, liburu horiek, lehen eta bigarren hezkuntzan erabiltzen direnak, beste neurri batzuekin batera, aukera bat izan daitezkeela eta izan behar dutela aipatutako hizkuntza inklusiboaren erabileran aurrera egiteko.

Seigarrena. Gaur egun dauden familia ereduen aniztasunari dagokionez, S.M. argitaletxearen Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiko liburuko aterakinean (124. orrialdea eta hurrengoak), familia gizartearen erdigunea dela definitu ondoren eta haren babes konstituzionala aipatu ondoren, ibilbide bat egiten da familiak denboran zehar eta kultura desberdinetan izan dituen moldeetan barna. Horrela, familia patriarkal eta zabalari buruz hitz egiten da, eta gaur egun indarrean dagoen familia nuklearraren

ereduari buruz ere bai. Azken horretan, berariaz aipatzen dira familia molde berriak; esate baterako, guraso bakarreko familiak –esaten da gurasoen banantze edo dibortzio baten ondorioz nahiz guraso baten heriotzaren ondorioz sortutakoak direla– eta banantze eta dibortzio baten ondoren berrosatutako familiak, zeinetan batera bizi baitaitezke bikote desberdinetako seme-alabak.

Deskribapen horretaz gainera, familiaren balioa aipatzen da, konpromisoan oinarritutako eskubide eta bizi-proiektu gisa, eta “giza familia handiaren” kontzeptua ere aipatzen da, pertsonen arteko elkartasun eta anaitasun balioei erreferentzia egiteko.

Familiaren erdiguneak abiapuntu duen bikoteen sexuari buruz, berriz, ez dago berariazko aipamenik bat ere, ez alde batera, ez bestera. Egia da, halere, testuarekin batera datozen irudiek gizon batek, emakume batek eta haien seme-alabek osatutako familia unitate bat erakusten dutela. Irudi hori erakusteko hautua legitimoa da, noski, eta egiazki ezin da ahaztu hori familia eredu “tradizionala” izateaz gainera, estatistiken arabera gehien gertatzen dena dela.

Hala eta guztiz ere, erakunde honen iritziz, familia ereduaren egungo aniztasuna zehaztasun eta zabalatasun handiagoz islatzeko, komenigarria litzateke liburuek berariaz aipatzea, modu batera zein bestera, litekeena dela normalean familia-unitatearen ardatz den bikotea sexu bereko pertsonen osatuta egotea eta, are gehiago, pertsona horiek pertsona heterosexualen baldintza beretan ezkon daitezkeela. Horrekin, gure ordenamendu juridikoan Kode Zibila –ezkontzeko eskubidearen arloan– aldarazteko uztailaren 1eko 13/2005 Legeak ezkontzeko eskubideari buruz eginiko ekarpena islatuko litzateke, horixe baita gaur den egunean indarrean dagoen legedia eta aplikatzekoa dena. Errealitate horren azalpenarekin batera, nahi bada, gaiari buruz dauden elkarren aurkako jarreraren aipamena egin liteke (lege hori dela eta kontituziokontrakotasuneko errekurso bat dago aurkeztua), eta batzuek eta besteek dauzkaten jarrerak eta haietarako argudioak azal litezke.

Horrela, testuliburuaren edukiak zorrotasun zientifikoaren irizpideari eta ikuspegiaren aniztasunari erantzunen lieke, hain zuzen ere horiexek direlako legeek exijitzen dituztenak eta Auzitegi Gorenaren

interpretazioak berretsi dituenak. Nola ez, aipamen hori nahitaezkoa izan beharko litzateke sare publikoko ikastetxeetan erabiltzen diren nahiz erabil daitezkeen liburuetan, sare horretan aniztasun eta neutraltasun ideologikoez irakaskuntzaren oinarria izan behar baitute, Auzitegi Gorenaren 2009ko otsailaren 11ko epaiek nabarmendu dutenez.

47

Aurreko liburuari buruz egin dugun gogoeta bera egin liteke Santillana argitaletxearen liburuaren aterakinari buruz; izan ere, horretan erakusten diren argazkiek, orobat, soilik familia tradizionala agerrarazten baitute, nahiz eta ez dugun atzeman errefusatzeko moduko inongo aipamen berariazkorik.

Familia inguruneen aniztasuna aipatuta ageri da, Hezkuntza Departamentuak adierazi duen bezala, Casals argitaletxearen 2. liburuko 11. orrialdean, non esaten baita “gaur den egunean, familia inguruneen aniztasuna gure garaietako bereizgarri bat dela. Familia konbentzionalaz gainera, bestelako bizi-egoera batzuk aurkitzen ditugu; esate baterako, guraso bakarreko familiak, gurasoen harreman berrien inguruan berrelkartutako familiak eta abar. Baina,

garrantzitsuena da familiak bere eginkizunak eraginkortasunez bete ahal izatea: bikotearen maitasuna bizitzea eta seme-alabak heztea”.

Zalantzak eragiten dizkio, bai, erakunde honi, erabilitako terminoak oso zehatzak baitira, azken argitaletxe horretako testuliburuetan familiari ematen zaion tratamenduak. Esate baterako, Casals 2 liburuaren 11. orrialdean esaten da “familia emakumearen eta gizonaren batasuna dela, bizitza partekatzeko eta seme-alabei etxe afektibo bat emateko xedez egina” (letra lodiz nabarmenduta ageri da “emakumearen eta gizonaren batasuna” adierazpidea). Eta oraindik ere esplizituagoa da Casals 1 testuliburua, zeinak, familia zer den azaltzen duen atalean, aurrekoa bera (gizonaren eta emakumearen batasuna eta batasun horretatik heldu diren seme-alabak) esateaz gainera, honakoa gehitzen baitu:

“Benetako familia bat dago bikote heterosexual baten batasun bat gertatzen denean edo gurasoen eta seme-alaben arteko harremana dagoenean, eta hori ekitaldi publiko erlijioso edo zibil baten bidez gauza daiteke, edo izatezko bikote baten bidez, inongo agiririk sinatzeko

beharrrik gabe... Egungo gizarteak krisialdi negatibo sakonean murgilduta dago familiak izan behar duenari dagokionez, eta familiaren handitasunari eta duintasunari buruzko ideiak ahultzen joan dira. Gaur egun, maiz, familia deitzen diogu edozein harremani edo batasunari. Bikote homosexualak ez dira egiazko familiak, izatezko batasun errespetagarriak dira, baina ez dira ezkontza bat, zeren eta ezkontzaren funtsa gizonaren eta emakumearen batasuna baita, seme-alabak edukitzeko aukera zabalik duena”.

Baieztapen horietan adierazten da, horrenbestez, egiazko ezkontza dagoela soilik gizonaren eta emakumearen batasunaren kasuan, eta sexu bereko bikoteen batasunak, errespetatzekoak iren arren, ez direla egiazko familiak.

Baieztapen horiek ez datoz bat indarreko legeetan araututako “ezkontzaren” kontzeptuarekin (berriz diogu Kode Zibila aldarazteko 13/2005 Legeak sexu bereko pertsonen arteko ezkontza baimentzen duela) eta, gainera, haien izate kategorikoarengatik, arestian aipatutako konstituzioaren printzipio eta balioen –botere publikoen aniztasun eta neutraltasuna eta

legearekiko errespetua– aurkakoak izan daitezke. Horiekin, zuzenean, ikuspuntu jakin bat ematen da gaur egun Espainiako gizartean eztabaidan dagoen gai moral bati buruz, zeina baita sexu bereko pertsonak ezkontzea eta familia-unitate bat osatzea; eta hain zuzen ere, gai horri buruzko legea onetsi berri da, Zuzenbideko Estatuaren berezko mekanismoen bidez, testuliburuan adierazitakoaren aurkako norabidean.

Liburuak sexu bereko pertsonen arteko batasunak aurkezteko erabiltzen duen modu hori, haiek errespetagarritzat jotzen dituen baina ez benetako ezkontza baten (izan ere, ez da jotzen hura errespetagarria denik, eta ukatu ere egiten da) eta benetako familia baten eratzailatzat, ez dirudi aniztasunari buruzko konstituzio-printzipioetan ahokutzen denik, legeari dagokionez eta gainerakoen eskubideei dagokienez ere (Konstituzioko 1.1 eta 10.1 artikulua). Hori dela eta, litekeena da liburua ez izatea oso gomendagarria irakaskuntzarako material gisa, “Herritartasunerako Hezkuntza” izeneko ikasgaiari, non gainerakoekiko eta legearekiko errespetuzko balioak irakatsi nahi diren, eta are gutxiago sare publikoko ikastetxeetan.

Auzitegi Gorenak adierazi duen bezala, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuak, erabilitako testuek eta irakaskuntza-jarduerak agerian jarri beharko dute, objektibotasunez, egun dagoen aniztasun soziala, eta azalpenetan ikasleak doktrinatzeko ahalegin oro saihestu beharko dira (2009ko maiatzaren 11ko epaia eta, ildo beretik, Andaluziako Auzitegi Gorenaren 2010eko urriaren 15eko epaia).

51

Auzitegi Gorenak gogorarazi du (2009ko otsailaren 11ko epaiak) ezen “Estatuak nahitaezkozkat kalifikatutako ikasgaiak ez dutela aitzakia bat izan behar ikasleak ideia edo doktrina jakin batzuetara lerrarazteko, doktrina horiek –argudio gutxi-asko egokiak erabiltzen dituzten alde batera utzita– jarrera batzuk islatzen dituztenean Espainiako gizartean adostasun moral orokorrik ez duten gai batzuei buruz. Gizarte demokratikoan, ez da hezkuntza-administrazioa izan behar –ezta ikastetxeak edo irakasleak ere– gatazkak eragiten dituzten gai moralen arbitro-eginkizunak betetzen dituen. Gai horiek, izan ere, gizarte zibilaren eztabaida askearen esparrukoak dira –gizarte zibilean ez da irakaslea-ikaslea erlazio bertikala gertatzen– eta, noski, banakako kontzientzien esparrukoak. Hori guztia dela eta, gisa

horretako arazoei heldu behar zaienean Herritar-tasunerako Hezkuntza ikasgaia irakasteko garaian –edo, kasua bada, beste edozein ikasgaitan–, objektibotasunik zorrotzena eta urruntzerik zuhurrena dira exijitzekoak”.

Horrenbestez, hezkuntza-ikuskaritzak iritzia eman beharko luke testuliburu horren edukiari buruz, alde batera utzita gainerako eduki eta liburuei buruz ere iritzia ematen duen.

Gogorarazi dugun bezala, testuliburuaren eta beste curriculum-materialen ikuskapena, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera, “hezkuntza-administrazioak irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruko elementu guztiak ikuskatzeko garatzen duen prozesu arruntaren zati izango da. Prozesu horretan, Konstituzioan jasotako printzipioekiko eta balioekiko eta lege honetan xedatutakoarekiko errespetua zaindu beharko da”. Eta horrek hezkuntza-sistemaren ikuskaritzara eramaten gaitu, hain zuzen ere Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko VII. tituluan erregulatzen denera (148. artikulutik 154. artikulura).

Hezkuntza ikuskapena Nafarroako hezkuntza-administrazioaren eskumena eta erantzukizuna da. Hezkuntza-sistemaren elementu eta alderdi guztiei buruz egin beharko da, honakoak ziurtatze aldera: legeen betetzea, eskubideen bermea eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten guztien betebeharrak betetzea, hezkuntza-sistemaren hobekuntza eta irakaskuntzaren kalitatea eta ekitatea (LOEren 148. artikulua). Hezkuntza ikuskaritzaren eginkizunen artean, honakoak ageri dira: ikastetxeen funtzionamendua ikuskatzea eta kontrolatzea; horiei lotutako programak ikuskatzea eta kontrolatzea; ikastetxeetan legeak betetzeaz arduratzea; LOEn jasotako printzipioak eta balioak betetzeaz eta aplikatzeaz arduratzea, horien barne direla emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko direnak; hezkuntza-komunitateko sektore guztiei beren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko gaietan aholkuak eta informazioa ematea; txostenak egitea, eta esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak (151. artikulua).

Zazpigarrena. Aukera afektibo-sexualen gaiari dagokionez, egiazki, berariazko erreferentzia gutxi daude emandako aterakinetan.

Casals argialetxearen 1. liburuan, afektibotasuna eta maitemintzea aztertzen diren zatian, esaten da maitemintzea dela norbait eksklusibotasunez maitatzea eta harekin batera eta harengan pentsatzea etorkizuna partekatzeko. Horri dagokionez, esaten da maitemintzea dela pertsona bat behar izatea, hura gabe bizitza ez ulertzea. Gero, egiazko maitasuna aztertzerakoan, esaten da pertsona bat maite izatea dela harengan sinestea, haren izateaz fidatzea eta hari eskaintzea norberak eman dezakeen onena.

Adierazpide horietan (norbait maitatzea, pertsona bat behar izatea) behar den neutraltasunari eusten zaio izan daitezkeen sexu-orientabideen aniztasunari dagokionez.

Bestalde, homosexualitateari –gizonezkoena nahiz emakumezkoena– buruzko berariazko aipamena, argialetxe horretako testuliburuetan egiten dena (Casals 2), pertsona guztien duintasunari buruzko atalean sartzen da, eta argi uzten da hori afektibotasunaren ezaugarri bat dela eta ez duela eraginik izan behar pertsonaren osotasunean, zeren eta ez baita sexu-joera pertsona bat hobetagoa edo

okerragoa egiten duena, baizik eta haren ekintzak. Horri dagokionez, azpimarratzen da ezen homosexualitatearen legezko babesa gorabehera, pertsona horiek maiz bazterketa (homofobia) pairatzen dutela. Bazterketa hori mingarria da eta ez du errespetatzen haien giza duintasuna. Azalpen hori, zeinak pertsona guztien duintasuna errespetatzeko beharra azpimarratzen baitu, edozein dela ere haien sexu-orientabidea, egokia da.

Maitasunari eta harreman afektiboari buruzko atalean, Santillana argitaletxearen Herritartasunerako Hezkuntzako ikasliburuan (40. eta 41. orrialdeak) ez dira aipatzen, ezta ere, harreman heterosexual edo homosexualak, baizik eta harreman afektiboak edo maitemintzekoak.

Erakusten diren irudiek (maitemindutako bikotea eta bikote baten haustura) bai erakusten dituzte harreman heterosexualak. Ildo berean dago planteatzen den ariketa, non, maitasunaren eta harreman afektiboen testuinguru berean, neskek adierazi behar dituzten mutilengan gustatuko litzazkiekeen ezaugarriak, eta alderantziz. Aukera sexual guztiekiko errespetuaren

ikuspuntutik, agian egokiagoa izanen litzateke ariketa beste modu batera planteatzea, pertsonaren ezaugarriei erreferentzia eginez, eta ez mutilen eta nesken ezaugarriei, hurrenez hurren.



3

ONDORIOAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

3. ONDORIOAK.

Aurreko gogoetetan adierazitakoa ikusita, erakunde honek honako ondorioak atera ditu:

1. Nafarroako ikastetxeetan, Herritartasunerako Hezkuntza eta Hezkuntza Etiko-zibiko ikasgaietan erabiltzen diren testuliburuetakako edukiek errespetatu behar dituzte, bereziki ikastetxe publikoetan, Konstituzioko beste printzipio eta balio batzuen artean, aniztasun sozialaren printzipioa, botere publikoen neutraltasun ideologikoa eta legearekiko eta gainerakoen eskubideekiko errespetua –bizikidetasunak berezko duena–.
2. Nafarroako hezkuntza administrazioak, testuliburu horien edukien ikuskapena egiteko duen legezko eginkizunean (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko laugarren xedapen gehigarria), ziurtatu behar du Konstituzioko aipaturiko printzipio eta balioei lehentasuna ematen zaiela, eta ziurtatu behar du, halaber, gizonaren eta emakumearen berdintasun eragingarria.

4

IRADOKIZUNA

4. IRADOKIZUNA.

Aurrekoa dela eta, erakunde honek honako iradokizuna egiten dio Hezkuntza Departamentuari:

“Testuliburu en eta bestelako curriculum materialen administrazio ikuskatzaile gisa betetzen duen legezko eginkizunetik abiatuta, txosten honetan aipatzen diren testuliburu en edukia ikuska dezala, txostenean adierazten diren gogoeten argitara, ziurtatze aldera konstituzioaren printzipio eta balioak betetzen dituztela: aniztasun soziala, botere publikoen neutraltasun ideologikoa eta legearekiko eta gainerako en eskubideekiko errespetua”.

63

Nafarroako Arartekoa

Francisco Javier Enériz Olaechea



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa